



## **ARTZINIEGA KO UDALA**

### **AKTA**

**Saioa: Ezohiko presazko osoko bilkura**  
**Eguna: 2016ko irailak 15**  
**Ordua: 12:30 – 12:45**  
**Tokia: Udaletxeko Bilkura Gelan**

Bertaratutakoak:

Iñigo Gomez Unzueta  
Inmaculada Vivanco Retes  
Maria Lorente Burgos  
Arkaitz San Jose Martinez  
Unai Gotxi Kastrexana  
Joseba Mirena Vivanco Retes

Ez dira agertu: José Luis de Valle Duque  
Alazne Lafragua Ureta  
Joseba Elejalde Ribacoba

M<sup>a</sup> Ascensión Hormazabal Meabe, idazkaria eta kontu-hartzailea.

Ondoren eta Presidentearen aginduz aztergaien zerrendan jasotako gaiak aztertzeari eta eztabaidatzeari ekin diote.

### **1.- B mahaiko kideak berriro izendatzeko zozketa, Hauteskunde Batzordeak onartutako aitzakien ondorioz hutsik geratu diren tokietarako.**

Indarrean dagoen Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 26. artikulua ezartzen duena betez, ezarritako legezko izapide guztiak bete ondoren, Udal honek berriro izendatu ditu Amurrioko Hauteskunde Batzordeak onartutako aitzakien ondorioz hutsik geratutako B mahaiko kideak, ondorengo pertsonen eta adierazitako karguetarako esleitu direlarik:

#### **B mahaia:**

Titularrak: Presidentea: M<sup>a</sup> Mercedes Santoveña Perezs andrea  
1. Mahaikidea. José Miguel Vadillo Rivacoba jauna  
2. Mahaikidea: José Manuel Sanchez jauna

Ordezkoak:

Presidentearenak: Sonsoles Ortuzar Herrán andrea  
Mónica Unceta-Barrenechea Garayo andrea  
1. mahaikidearenak: M<sup>a</sup> Jesus Regulez Montoya andrea  
Manuel Peralta Valdezate jauna  
2. mahaikidearenak: María del Pilar Montes Díaz andrea  
Luis Miguel Ruiz de la Hermosa Villanueva jauna



Jakinarazi Amurrioko Hauteskunde Batzordeko Presidente jaunari.

Eta jorratzeko beste gairik gabe, amaitutzat eman zen saioa, lehenago aipatu egunaren hamabiak eta berrogeita bost minututan. Eta guztiorren gainean, fede ematen dut.

EGINBIDEA.- Jasota gera dadin 13:01ean posta elektronikoz jaso zela Amurrioko Hauteskunde Batzordearen 15/2016 Akta, honakoa zioena:

"Artziniegako B mahai honetarako izendatutako pertsonen aitzakiak jaso eta onartu ondoren, 1.1.B mahaia presidentearen 1. eta 2. ordezkoei soilik osatzen dute, Hauteskundearen Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko Lege Organikoaren 26 artikulua xedatutakoari jarraituz, Batzordeak erabaki du dagokion Udalari egoera hau jakinaraztea zozketa publiko berria egin dezan hauteskunde-mahaia erabat osatzeko, lehenago aipatutako eta aitzakiarik gabeko izendapenak kaltetu gabe. Zehazki, zozketa publiko berri bat burutu beharko da 1. eta 2. mahaikideen karguak eta horien ordezkoei izendatzeko (presidentearen 1. ordezkoa presidente izatera pasa baita eta presidentearen 2. ordezkoa presidentearen 1. ordezko izatera pasa baita).

Batzordeak Artziniegako idazkaria baimentzea erabaki du, gorago aipatutako baldintzen arabera zozketa publiko berria egin dezan".

Irailaren 14an, 14:00etan, idazkaritza honi jakinarazi zitzaion telefonoz 1.1.B mahaia presidentearen 1. eta 2. ordezkoei soilik osatuta geratu dela eta, ondorioz, zozketa berria burutu behar dela. Arrazoi horrengatik, presazko ezohiko osoko bilkura baterako deialdia egin zen, gaurko, 2016ko irailaren 15erako, 12:30etan, eta hutsik geratu diren postu guztiak zozketatu dira, presidentearena barne.

Burututako saioaren ondoren jakinarazitako Aktan ezarritakoari jarraituz, M<sup>a</sup> Mercedes Santoveña Perez andrearen presidente izendapena ezeztatu beharra dago, presidente gisa Sonsoles Ortuzar Herrán andrea utziz eta presidentearen ordezkoi gisa Mónica Unceta-Barrenechea Garayo andrea.

Horrengatik, presidente postuaren zozketa ezeztatu da eta gainerako postu hutsen zozketatik eratorritako dokumentazioa Amurrioko Hauteskunde Batzordeari helarazi zaio.

Artziniegan, 2016ko irailaren 15aren ordu bata eta hamabost minututan. IDAZKARIA.